

BATERALABS-EN GOIERRIKO ESKUALDEKO 1. SAIOAREN AKTA

Data: 2026ko ekainaren 26a (asteartea)

Lekua: Goieki-NBF-Goitur-Goierri Valley, Ordizi, Gipuzkoan

1. Ekitaldiaren helburua

Ekitaldiaren helburua **Goierri**n herritarren laborategia hasia izan zen, lurraldeko klima-erronkak identifikatzeko eta gizarte-eragileen, herritarren eta erakundeetako ordezkarien ekarpenak jasotzeko.

Saio honek **Klima aldaketari eta horrek eskualdean duen eraginari buruzko informazioa** emateko, Goierriko eskualdeko elkarte eta herritarren ordezkarien talde bat sortzeko eta bigarren saioan landuko diren erronkak ateratzeko balio izan zuen. Hori guztia herritar eta politikariek zuzenduta dago: hainbat udalerri eta eskualde-agentzietako ordezkari publikoekin, auzo-elkarteekin, elkarte sektorialekin eta eskualdeko eragileekin.

2. Ekitaldiaren garapena

2.1 Blokeen garapena

Jarraian, ekitaldiaren blokeak, esku hartzeko benetako denborak eta arduradunak zehazten dira:

1. Ongi etorri instituzionala (5 min)

- **Arduraduna:** José Ignacio Asensio, Gipuzkoako Foru Aldundiko Iraunkortasun diputatua.
- **Deskribapena:** Gipuzkoako Foru Aldundiaren partetik irekiera eta ongi-etorri hitzak bertaratuei. Proiektuak herritarren benetako partaidetzarako foro gisa duen garrantzia nabarmendu zuen, baita klima-aldaketak eguneroko bizitzan duen eragin zuzena eta Goierriko eskualdean izan dezakeen eragina ere. Eskualde bakoitzera egokitutako politiken beharra azpimarratu zuen, oinarri zientifikoarekin eta herritarren eta administrazioen arteko lankidetzarekin.

2. Eskualdeko datuak eta informazioa aurkeztea (25 min)

- **Arduraduna:** Xabier Esteban, Naturklimaren zuzendaria eta Dorleta Orúe-Echevarría, Naturklima Behatokiaren koordinatzailea.
- **Deskribapena:** Klima-aldaketa propioak Goierriin duen eraginari buruzko datuak eta informazio zientifikoa azaltzea.

3. Parte-hartze prozesuaren aurkezpena (10min)

- **Arduraduna:** Luzia Salamanca, Osoigoko proiektuen arduraduna.
- **Deskribapena:** Parte-hartze prozesuaren azalpena, hiru saio dituela adieraziz: klima-erronkak identifikatzea, proposamenak egitea eta amaierako proiektua aurkeztea. Saioaren dinamikaren azalpen zehatza: erronkak identifikatzeko erabiliko liratekeen helburu espezifikoak eta dinamikak. Ordezkarri publikoen eta eskualdeko agentzien parte-hartze aktiboaren garrantzia nabarmendu zen, prozesuaren ordezkarritasuna eta eraginkortasuna bermatzeko eta Bateralabs.eus-en online parte hartzeko aukera bermatzeko.

4. Parte-hartze dinamika (40 min)

Dinamika lan-mahaien bidez garatu zen. Mahai horietan, parte-hartzaileek lurraldeko klima-erronkak identifikatu zituzten, post its -ak erabiliz eta taldean eztabaidatuz. Ondoren, mahai bakoitzak identifikatutako ideia nagusiak partekatu ziren plenarioan. Herritarren laborategiaren saioan, taldeetan lan egin zen Goierriko jasangarritasunarekin lotutako lehentasunezko arazoak eta erronkak identifikatzeko, arreta berezia jarritz mugikortasunari, hondakinen kudeaketari, espazio naturalei, energiari eta klima-aldaketarako egokitzeari.

Horretarako, eskualdeko mapa bat landu zen, eta mapa horren gainean tokiko erronkak identifikatu eta kokatu ziren. Jarraian, lan-mahai bakoitzak egindako ekarpen nagusiak jasotzen dira.

1. Taldea. Bozeramailea: Adur Ezenarro, Ordiziko Alkatea.

Taldeak klima-aldaketaren ondorioek eskualdean duten eraginarekiko kezka adierazi zuen, eta bereziki azpimarratu zuten muturreko beroaldiei aurre egiteko azpiegitura publikoak ez daudela behar bezala prestatuta. Ildo horretan, nabarmendu zuten eraikin publiko askotan ez dagoela aire egokiturik, eta babesgune klimatikoen gabezia dagoela auzo ezberdinetan. Halaber, adierazi zuten beharrezkoa dela babesgune klimatiko horien funtzionamendua eta eskaintzen dituzten zerbitzuak argi definitzea, etorkizunean momentuan zegoen bezalako bero-egunak gero eta ohikoagoak izango direlakoan.

Mugikortasunari dagokionez, lanerako joan-etorrietan bidegorriak gero eta gehiago erabiltzen direla aipatu zen, nahiz eta hori ez den nahikoa bizikletaren erabilera orokortzeko. Horrenbestez, sentsibilizazio-neurriak indartzeko beharra azpimarratu zuten, baita autoa partekatzea sustatzeko eta aparkalekuen kudeaketa zorrotzagoa egiteko ere. Era berean, adierazi zen eskualdeko herri askotan autoaren erabilera handia dela aparkatzeko erraztasunak direla medio, eta egoera hori aldatzeko neurriak aztertu beharko liratekeela.

Bestalde, hiriguneetan zuhaitzek eta itzala sortzen duten guneek duten garrantzia nabarmendu zuten, bereziki beroari aurre egiteko. Hala ere, azaldu zen zailtasunak daudela eraikuntza berriko eremuetan zein hirigune historikoetan halako espazioak txertatzeko. Proposamen gisa, zuhaitzak landatzeko irizpide zorrotzagoak ezartzea planteatu zen, ez bakarrik kopuruari dagokionez, baita espezie motari eta ematen duten itzalari dagokionez ere. Halaber, zenbait eremutan berdegune, parke, itzal eta ur-guneen gabezia dagoela aipatu zen.

Ibai eta uholdeen inguruan, udalerrien arteko koordinazio handiagoa eskatu zuten ibaien mantentze-lanetan. Taldearen iritziz, koordinazio falta horrek zailtasunak sor ditzake eta uholde-arriskua areagotu. Oro har, adierazi zen herriak ez daudela behar bezala prestatuta uholdeei aurre egiteko, nahiz eta udalerri bakoitzean zein eremu diren zaugarrienak ezagunak izan. Adibide gisa, duela gutxi Amezketan eta Ezkion izandako gertakariak aipatu

ziren, momentu jakin batzuetan euri-jasa handiei aurre egiteko zailtasunak agerian uzten dituztenak.

Azkenik, larrialdi egoerei aurre egiteko komunitate-sarearen ahultzea aipatu zen. Taldeak adierazi zuen garai bateko auzolan edo elkarlan komunitarioaren galera sumatzen dutela, eta kezka agertu zen sute edo antzeko egoeretan herritarrak nola antolatu beharko liratekeenaren inguruan. Nahiz eta zenbait baliabide eta zerbitzu espezializatu egon, hala nola suhiltzaileak edo suaren inguruko prestakuntza-egiturak, komunitatearen inplikazioa eta antolaketa indartu beharra azpimarratu zen.

Erronken laburpena gaika:

Mugikortasun jasangarria

- Bizikletaren erabilera sustatzea.
- Kotxearen gehiegizko erabilera.
- Kotxe partekatze sistemak bultzatu.
- Aparkaleku-politikak berrikustea.

Hiri-berroneratzea


- Eraikin publikoak bero handietara egokitzea.
- Berdegune eta itxa-guneen falta.
- Itzal-gune gehiago sortzea.
- Berdegune gehiago sortzea eta zuhaitzak landatzeko irizpide berriak jartzea, itzala eman dezaten.

Uholdeak

- Ibaietako mantentze koordinatua indartzea udaletxeen artean.

Gobernantza

- Larrialdi egoerei aurre egiteko komunitate-sarearen ahultzea.
- Larrialdi egoerei aurre egiteko komunitatearen inplikazioa eta antolaketa indartu beharra azpimarratu zen.



2. Taldea, Bozeramailea: Aitor Urkiola, Olaberriako Ingurumen zinegotzia.

Bigarren taldeak mugikortasunaren gaia eskualdeko erronka nagusietako bat dela adierazi zuen, eta azpimarratu zen Goierriko errealitate oso desberdinak dituela udalerrien artean, herri sakabanatu eta ezaugarri ezberdinekin. Horregatik, mugikortasunak etorkizunean izango duen eragina kontuan hartuta, beharrezkotzat jo zuten garraio-sistema hobetzea. Nabarmendu zuten neurriak ez direla autobus zerbitzua hobetzera soilik mugatu behar; aitzitik, enpresen ordutegiak bateratzea eta herritarren sentsibilizazioa sustatzea ere garrantzitsutzat jo zen, mugikortasun eredu jasangarriago baterantz aurrera egiteko.

Eraikin publikoen egokitzapenari dagokionez, muturreko beroaldiak gero eta ohikoagoak diren testuinguruan, eskola, haurreskola eta adinekoen zentroak bezalako espazioak egokitzeko beharra azpimarratu zuten. Adibide gisa, Alemaniako etxe pasiboen eredua aipatu zen, eta adierazi zuten tokian tokiko eraikin publikoetan oraindik ere halako irizpide energetiko eta klimatikoak ez direla behar bezala txertatu.

Berdeguneei dagokionez, herriguneetako berdeguneen eta itzalaren garrantzia nabarmendu zuten. Zentzu horretan, Paris hirian egiten ari diren eraldaketak aipatu ziren erreferentzia gisa, espazio urbano berdeagoak eta egokituagoak sustatzeko bidean. Adierazi zen urbanizazio berrietan zuhaitzak landatzen direla, baina denbora behar dela horiek hazteko eta benetako itzal-gune eraginkorrak sortzeko. Ondorioz, gaur egungo bero-egunetan agerian geratzen dela itzal faltaren arazoa, batez ere hormigoi, urbanizazio eta azalera gogorren presentzia handia duten eremuetan. Horren harira, hirigintza ulertzeko moduaren inguruko “txip aldaketa” baten beharra aipatu zen.

Basogintzaren inguruan, azken urteetako gainbehera eta banda marroiaren eragina aipatu ziren, eta egungo baso-ereduari buruzko hausnarketa egiteko beharra planteatu zuten. Taldearen iritziz, tokiko eta epe luzera iraunkorrak izango diren landare espezieak landatzea sustatzea komenigarria litzateke, suteekiko erresilientzia handiagoa dutelako. Adibide gisa, haritzek suaren aurrean izan dezaketen erresistentzia handiagoa aipatu zen. Hala ere, naturgune edo babes-eremu berriak izendatzeak gatazkak sor ditzakeela adierazi zen, lurren jabetza pribatua oso hedatua baitago eta zenbait jabek ez baitute halako esku-hartzerik nahi.

Azkenik, ibaien gainezkatzeko arriskua ere aipatu zen, bereziki Beasainetik behera dauden eremuetan. Adierazi zen Legorretako zati handi bat uholde-arriskuko eremu bihur litekeela, eta horrek etorkizunera begirako prebentzio- eta egokitzapen-neurrien beharra agerian uzten duela.

Erronken laburpena gaika

Mugikortasuna

- Garraio publikoa eta lantegien ordutegiak koordinatzea.
- Herri sakabanatuen arteko loturak hobetzea.

Energia

- Eskola, haurreskola eta adinekoen zentroak bezalako espazioak beroa jasateko egokitzeko beharra.

Hiri-berroneratzea


- Itzalgune falta.
- Berdegune gehiago sortzea urbanizazioetan.
- Itzal naturala handitzea.

Basogintza

- Bertako basoen berreskurapena sustatzea.
- Basoen erresilientzia handitzea sute eta klima-aldaketaren aurrean.

Uholdeak

- Ibaien gainezkatzeko arriskua bereziki Beasainetik behera eta Legorretako herri osoa.



3. Taldea

Taldeak hasi zen azpimarratuz beste eskualde batzuetan gertatzen ari diren fenomenoak eta ondorioak Goierrin ere gero eta nabarmenagoak direla, eta etorkizunari begira egoera horiei aurrea hartzeko beharra aipatu zen.

Energiaren arloan, udalerri ezberdinetan komunitate energetikoak sortzeko ekimenak martxan jartzen ari direla azaldu zuten. Hala ere, horrelako proiektuek erronka ekonomiko garrantzitsuak dituztela adierazi zuten, eta, ondorioz, esku-hartze publiko ezberdinak baloratzeko beharra aipatu zen. Era berean, herritarren artean sentsibilizazio-kanpainak indartzearen garrantzia azpimarratu zuten, komunitate energetikoen inguruko informazioa eta parte-hartzea jende gehiagorengana iristeko. Halaber, udalek halako ekimenetan izan dezaketen rola inguruan hausnartu zuten, bereziki dinamizatzaile edo koordinatzaile modura bete dezaketen funtzioari dagokionez.

Garraio publikoarekin jarraituz, gaur egungo zenbait ibilbide eta zerbitzu ez direla auzo eta eremu guztietara iristen adierazi zuten, eta horrek herritarren zati bat garraio publikotik kanpo uzten duela esan zuten. Adibide gisa, San Gregoriora doan autobus zerbitzuaren inguruko proposamenak aipatu ziren, ibilbideetan aldaketa txikiak eginez zerbitzua erabiltzaile gehiagorengana irits litekeela nabarmenduz, adibidez Kaxetara iritsiz. Horrez gain, garraio publikoaren erabilera sustatzeko beharra azpimarratu zen, herritarrek zerbitzu horiek probatzera eta erabiltzera bultzatzeko neurriak beharrezkotzat jota.

Lehorte eta prezipitazio faltaren ondorioei dagokienez, abeltzaintzak eta nekazaritzak duten zaurgarritasuna aipatu zen. Euri gutxi egiteak belar gutxiago sortzea eragiten duela azaldu zen, eta horrek abereentzako elikagai falta eta kostu ekonomiko handiagoak dakartzala. Gainera, nekazariak eta abeltzainak kanpotik elikagai gehiago ekarri behar izaten dituztela adierazi zen, horrek garraioarekin lotutako kostu eta kutsadura handiagoa sortuz. Egoera horri nola aurre egin aztertzeke beharra planteatu zen.

Bestalde, haizete bortitzen ondorioak ere aipatu ziren, hala nola negutegiak edo zuhaitzak kaltetzea, eta arrisku horiek kontuan hartu eta baloratzeko beharra azpimarratu zuten.

Biodibertsitatearen inguruan, taldeak ezagutza mugatua zuela adierazi zuen arren, espezie inbaditzaileen inguruko kezka aipatu zen, bai landareei bai animaliei dagokienez. Zentzu

horretan, espezie horiek identifikatzeko eta horien aurrean zer neurri har daitezkeen aztertzekeo beharra nabarmendu zen.

Azkenik, basoen eta ibaien kudeaketaren inguruan, uholde-arriskuko eremuak identifikatzearen garrantzia azpimarratu zen. Beasain inguruko zenbait punturen egoera aipatu zen, baita Ataungo San Martin auzoan luizi-arriskua izan dezaketen eremuak identifikatzeko beharra ere.

Erronken laburpena gaika

Energia

- Energia-komunitateak sustatzea.
- Interbentzio publiko gehiago baloratzea.

Garraio publikoa

- Autobus-lineak auzo gehiagotara zabaltzea. Adibidez, San Gregoriokoa Kaxetara iristea.
- Herritarrek garraio publikoa horiek probatzera eta erabiltzera bultzatzeko neurriak.

Aldaketa klimatikoa


- Haizete bortitzen ondorio kaltegarriak, adibidez, negutegiak edo zuhaitzak kaltetzea.

Lehen sektorea

- Lehortee abeltzaintzan duten eragina aztertzea.
- Tokiko ekoizpenaren jasagarritasuna bermatzea.

Uholdeak

- Beasain inguruko zenbait punturen egoera aipatu zen, baita Ataungo San Martin auzoa.
- Luizi-arriskua izan dezaketen eremuak identifikatzeko beharra ere.



4. Taldea, Bozeramailea: Manex Aranburu, Goimen.

Laugarren taldeak adierazi zuen trantsizio energetikoaren testuinguruan beharrezkoa dela Goierriko errealitateari egokitutako lehentasunak definitzea eta tokiko ezaugarriei erantzuteko neurriak garatzea.

Energia komunitateen inguruan, baserriak ere halako egituretan txertatzeko aukerak aztertu ziren, bereziki azken aldaketekin komunitate energetikoen eragin-eremua handitu dela kontuan hartuta. Ildo horretan, landa-eremuetan potentzial handia dagoela azpimarratu zuten, eta aukera interesgarriak sor litezkeela bai energia-sorkuntzari bai efizientzia energetikoari dagokionez. Halaber, baserritarren etekin ekonomikoak eta jardueraren bideragarritasuna kontuan hartzearen garrantzia nabarmendu zen.

Mugikortasunari dagokionez, Goierriko udalerri askoren sakabanaketa dela eta, garraio publikoa eremu guztietara modu eraginkorrean iristeko zailtasunak daudela aipatu zuten. Horrez gain, aparkaleku faltak sortzen dituen arazoak ere azaleratu ziren. Taldearen iritziz, mugikortasunaren eta energiaren inguruko eztabaidak eguneroko errealitatearekin lotu behar dira, herritar askok kotxea erabiltzeko beharra dutelako eta, kasu askotan, etxetik gertu aparkatzeko zailtasunak dituztelako. Adibide gisa, aparkaleku bila denbora luzez ibiltzeak sortzen duen kutsadura eta autoaren erabilera intentsiboa aipatu ziren.

Bestalde, basoen eta ibaien kudeaketak klima-alaketaren ondorioekin duen lotura zuzena azpimarratu zen, bereziki uholde-arriskuei dagokienez. Baiuntz eta Tximista inguruko egoerak aipatu ziren, baita Beasain eta Ordizia arteko eremuan azken urteetan gertatutako euri-jasa puntual eta bortitzak ere. Era berean, Ataungo San Martin auzoa ere aipatu zen arrisku-gune gisa. Taldearen iritziz, egoera horiek lotura zuzena dute basogintzarekin, biodibertsitatearen galerarekin eta basoen egungo kudeaketa-ereduekin. Horrenbestez, klima alaketari eta uholdeei aurre egiteko politika eta baso-eredu berriak probatzeko beharra planteatu zuten.

Biodibertsitateari dagokionez, bertako espezieek etorkizuneko baldintza klimatikoetara nola egokituko diren aztertzeke interesa azaldu zen. Horrek nekazaritza-eredu berriak ekar ditzakeela adierazi zen, baina ikuspegi zabalago batetik heldu behar zaiola gaiari, ez soilik zer landatu erabakitzeke. Izan ere, animalien, hegaztien, intsektuen eta izurriteen inguruko alaketek ere eragin zuzena dute ekosistemetan eta kate trofikoan. Halaber, kanpotik irits daitezkeen gaixotasunek gizakiengan ez ezik animaliengan ere izan dezaketen eragina aipatu zen, eta horrek biodibertsitate osoan ondorio transbertsalak izan ditzakeela nabarmendu zen.

Hirigintzaren eta espazio urbanoen inguruan, gero eta biztanle gehiago pilatzen diren hirietan bernalizazioaren beharra azpimarratu zuten. Taldearen ustez, aterpe klimatikoaren kontzeptua ez litzateke soilik espazio itxietara mugatu behar; kontrara, kale eta espazio publikoetan dagoen berdegune eta zuhaitzen presentziak gero eta garrantzi handiagoa du. Adibide gisa, Bilboko Gran Vian dauden tilo handiak aipatu ziren, ematen duten itzalagatik eta erosotasunagatik. Ordizia eta Beasain inguruko zuhaitz askok ordea, ez dutela halako garapen-mailarik lortuko adierazi zuten. Horren harira, hirigintzan bestelako irtenbideak aztertzeke beharra aipatu zen, hala nola lorategi bertikalak edo baratze bertikalak, gaur egun oraindik gutxi garatzen diren arren aterpe klimatiko gisa potentzial handia izan dezaketen elementu gisa.

Azkenik, lehen sektorearen eta uraren kudeaketaren arteko lotura azpimarratu zuten. Taldearen iritziz, lehorte garaian erreka eta ur-baliabideen erabilerari ematen zaion tratamenduak lehen sektorea kaltetzen du zenbait kasutan. Azaldu zuten baserri askotatik igarotzen diren erreka eta lehorte garaian erabiltzeko murrizketak ezartzen direla, eta horrek nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak baldintzatzen dituela. Horrenbestez, uraren kudeaketari ikuspegi berri bat emateko beharra planteatu zen, ur-partzuergoekin eta sektore ezberdinekin elkarlanean. Era berean, erreka eta energia-iturri gisa izan dezaketen potentziala aipatu zen, nahiz eta gaur egungo araudiak aukera horiek praktikan garatzea zailtzen duen.

Erronken laburpena gaia

Transizio energetikoa

- Baserriak energia-komunitateetan integratzea.
- Efizientzia energetikoa sustatzea.

Mugikortasun jasagarria:

- Garraio publikoa herri guztietara iristeko zailtasuna.
- Kotxearen gehiegizko erabilpena.
- Aparkaleku arazoak sortzen duen kutsadura.

Uholdeak

- Arrisku-guneak identifikatzea.
- Basoen eta ibaien kudeaketa hobetzea.
- Baiuntz eta Tximista inguruko egoerak aipatu ziren, baita Beasain eta Ordizia arteko eremua.
- Ataungo San Martin auzoa aipatu zen arrisku-gune gisa.

Cambio climático


- Bertako espezieek etorkizuneko baldintza klimatikoetara nola egokituko diren aztertzea.

Hiri-berroneratzea

- Hiriak berrnaturalizatzea.
- Lorategi bertikalak eta kaleko aterpe klimatikoak sustatzea.

Lehen sektorea

- Lehorte garaian erreka eta ur-baliabideen erabilerrari ematen zaion tratamenduak lehen sektorea kaltetzen du.
- Uraren kudeaketari ikuspegi berri bat emateko beharra planteatu zen, ur-partzuergoekin eta sektore ezberdinekin elkarlanean
- Errekastoek energia-iturri gisa izan dezaketen potentziala aztertzea.



5. Taldea. Bozeramailea: Jorge Mancisidor, Goierri Eskola.

Azkeneko taldeak adierazi zuen taldean aipatutako gai gehienak jada mahai gainean jarriak izan direla, baina bereziki azpimarratu nahi izan zuten egoera zaurgarrian dauden pertsonen lan egiten duten erakundeek plan espezifikoak izateko beharra daukatela. Horrekin lotuta, muturreko beroaldi, uholde edo antzeko larrialdi egoeretan nola jardun definitzeaz gain, beharrezko baliabideak ere aurreikusi behar direla nabarmendu zuten, bereziki hurrei, kalean bizi diren pertsonen eta adinekoei arreta egokia bermatzeko.

Energiaren eta eraikinen egokitzapenaren inguruan, adierazi zuten lantegiak eta hezkuntza-zentroak ez daudela prestatuta tenperatura altuei aurre egiteko. Saioa gauzatu zen astean bertan bizi izandako egoerak aipatu ziren adibide gisa, ikasgela batean ikasle kopuru handia eta bero handia uztartzea oso zaila dela azpimarratuz. Ondorioz, gaur egungo espazio askok ez dutela baldintza klimatiko berrietara egokitzeko beharrezko prestakuntzarik nabarmendu zuten.

Bestalde, luizi eta uholdeen aurrean jarduteko plan espezifikoaren beharra azpimarratu zen, bereziki Amezketa eta Tolosaldeko beste zenbait eremutan gertatutako egoerak gogora ekarriz. Adierazi zuten euri-jasa lokalizatu eta bortitzen aurrean herritarrek ez dakitela askotan nola jokatu, eta zalantzak agertu ziren halako planak behar bezala garatzen ari ote diren inguruan. Horren harira, komunikazio-plan argi baten garrantzia ere nabarmendu zuten, herritarrek arrisku egoeretan informazio egokia eta garaiz jasotzea bermatzeko.

Basoen kudeaketari dagokionez, taldeak adierazi zuen lehen basoen garbiketa eta planifikazio lan handiagoa egiten zela, bai administrazioaren aldetik bai auzolanaren bidez. Gaur egun, ordea, ez dagoela argi halako lanak zein neurritan egiten diren aipatu zen. Zentzu horretan, herritarrei informazioa eta komunikazioa helaraztearen garrantzia azpimarratu zen berriro.

Mugikortasunaren inguruan, Goieki-rekin egindako bileretan landutako neurriak aipatu ziren, bereziki enpresen arteko koordinazioa eta ordutegien bateratzea. Azaldu zen eskualdean enpresa handi ugari dagoela, eta mugikortasuna optimizatzeko neurri bateratuak beharrezkoak direla. Horrenbestez, garraioa eta mugikortasun jasangarria sustatzeko ekimenak indartzearen beharra aipatu zen, hala nola autoa partekatzea edo bizikletaren erabilera sustatzea.

Azkenik, aire egokituen erabileraren inguruko hausnarketa egin zen. Taldeak adierazi zuen tenperatura altuei aurre egiteko aire egokitua gero eta gehiago erabiltzen den arren, sistema horiek sortzen duten beroa kanpora askatzen dela eta, neurri batean, kaleetako beroa areagotu

dezaketela. Ondorioz, zenbait kasutan erabiltzen diren irtenbideek arazoari berari ere kalte egin diezaioketela azpimarratu zen.

Erronken laburpena gaika

Gobernantza

- Kolektibo zaurgarrientzako plan bereziak garatzea muturreko fenomeno klimatikoei aurre egiteko.

Energia

- Lantegiak eta eskolak baldintza klimatiko berrietara egokitzea.
- Aire egokituaren erabilera aztertzea.

Uholdeak

- Luizi eta uholdeen aurrean jarduteko plan espezifikoak garatzea.

Gobernantza


- Komunikazio-planak herritarrei helarazteko garatzen diren prebentzio-planak.

Lehen sektorea

- Basoen kudeaketa hobetu.

Mugikortasun jasangarria:

- Enpresen arteko koordinazioa eta ordutegien bateratzea.
- Kotxe partekatzea eta bizikletaren erabilera sustatzea.



3. Itxiera

- **Arduraduna:** José Ignacio Asensio, Gipuzkoako Foru Aldundiko Iraunkortasun diputatua.

Saioa amaitzeko, parte-hartzaileei eskerrak eman zitzaizkien eta hurrengo saioetan identifikatutako erronkei erantzuteko proposamenak lantzen jarraitzeko gonbita egin zitzaien.